

Santa Zezilia eguna ospatzeko kontzertuak emango dituzte gaur

-ANE MARURI ARANSOLO

Ohiturari jarraituz, musikarien zaindariaren jai ospatuko dute bihar Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdean. Bezperan, baina, Santa Zezili omenduko dute Gernika-Lumoko, Bermeoko eta Berriatuko musikariek.

Euskal Herriko Musika Eskolen elkarteagaz batera koordinatuta, musika kalera aterako dute Bermeon eta Gernika-Lumon.

17:30etik aurrera jai giroan elkartuko dira bermeotarrak, eta herriko plaza eta txoko guztiak musikatu dituzte zuzenean. Musika eskola aurreko plazara aterako dira lehenengo. Koru txikiko kantariak, konbo txikiko partaideak, trikitilari eta pande-



SOMEko musikariak, Bakearen Doinuak kontzertuan. TXEBIARRIAGA

ro jotzaileak eta harrerako kantari txikiak ariko dira kalez kale. «Guztiek doinu freskoak plazaratuko dituzte, eta entzuleria ere

kantuan jarriko dute», esan dute musika eskolako arduradunek.

Gernika-Lumon ere ordu berean jarri dute hitzordua Barren-

kale kalean. 6-9 urteko umeen abesbatzak hainbat abesti kantatuko ditu kalerik kale.

Bi emanaldi

Segundo Olaeta Musika Eskola-kideek bi emanaldi berezi eskainiko dituzte. Bigarren emanaldia 19:30etik aurrera eskainiko dute, Lizeo Antzokian, eta ikasturtean orain arte ikasitakoak erakusteko aukera izango dute musikariek. Akordeoi, gitara eta txistu taldekoak ariko dira oholtza gainean, baita fanfarrikoak ere. Orkestrako eta ganberako musikariek ere euren lanak erakutsiko dituzte, eta bandak ere saioa eskainiko du.

Berriatuan ospakizuna Tarine udal musika eskolaren eskutik egingo da. 17:00etan kalejira egingo dute, eta ostean, Zertzelada musikala eskainiko dute, aterpean. Euria egingo balu, kalejirarik ez luketela egingo esan dute Tarinekoek.

'Zaldi Urdina' antzezlanaren aurkeztuko dute gaur, Gernikako liburutegian

-A.M.A.

Zaldi Urdina antzezlanaren aurkeztuko dute gaur, 19:30ean, Gernika-Lumoko Liburutegian. Zapatuan Lizeo Antzokian antzeztuko dute, 20:30ean.

Artedrama plataformako Ander Lipus eta Irantzu Azpeitia solasean ariko dira gaur, eta Zaldi Urdina obrak lantzen duena kontatuko dute. 80ko hamarkadan Euskal Herriko kaleetan drogak izandako presentzia du mintzagai obrak. Ikuspuntu kritikotik lantzen dute, droga kontsumoak eragin zituen zauri pertsonal eta sozialak azpimarratuz.

Antimilitarismoaz eta memoria historikoaz ariko dira Astran, bihar

-A.M.A. Gernika-Lumo

Antimilitarismoari eta memoria historikoari buruzko jardunaldiak egingo dituzte bihar, Astran; 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30ra bitartean jarri dituzte hitzorduek.

Gernika Gogoratuz, Gernikatik Mundura, Ideasur, Astra eta Gernika-Lumoko Udalak bultzatu dituzte jardunaldiak, eta denetara lau hitzaldi antolatatu dituzte. Denek ala denek Giza garapen gehiago eta arma gutxiago leloagaz bat egingo dute.

Gernika Gogoratuz elkarte-

ek esan dutenez, industria militarrek gerran daukan eragina eta inplikazio maila zein den eta nazioarteko erakundeek gai horri buruz zer egin beharko luketen aztertuko dute.

Bi saiotan

Bitan banatuko dute biharko jardunaldia. Lehenengoa Maria Oianguren Gernika Gogoratuz elkarte-kideak zuzenduko du, eta bertan egongo dira Fernando Cruz Kolonbiako Caquetako Egiaren Batzordearen koordinatzailea eta Emerita Cuellar iker-

tzailea. Egia eta memoriaren eraikuntza landuko dute.

Kolonbiako lurraldeetako egiaz ariko da Cruz, eta Kolonbian bakea eraikitze beharrezko dimentsioa zelakoa den azalduko du. Cuellarregaz, *Sin minería, la vida tiene futuro* izeneko dokumentala ikusiko dute. Gatazkan dauden herrialdeak proiektuaren barnean burututako ikus-entzunezkoa da, eta dokumentalaren nondik norakoak azalduko ditu adituak, bera baita Tolimako kasuaren azterketa egin duen ikertzaileetako bat.

Arratsaldeko saioan, desmilitarizazioa eta bakearen eraikuntzari helduko diote. Jokin Alberdi Gernikatik Mundurako kideak aurkeztuko du, eta beragaz egongo dira Zuriñe Rodríguez Sudergintza bakerako eta gatazkarako ikerketa zentro feministako kidea eta Luis Arbide eta Argi Otsoa Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarte-kideak.

Euskadiko harremanak eta jendearen ikuspegia desmilitarizatzea izeneko hitzaldia zuzenduko du Rodríguez, eta *La guerra empiezo aquí* dokumentala azalduko dute Arbidek eta Otsoak.

Jardunaldiak gaztelaniaz izango dira, eta beharrezkoa da bertaratzea baieztatzea, ondorengo posta elektronikora idatzita: info@gernikagogoratuz.org.

Silvia Agüero aktibista eta feministaren hitzaldia, gaur, Astran

-A.M.A. Gernika-Lumo

Silvia Agüero aktibista eta feministak ijitoen feminismoari buruzko hitzaldia emango du gaur, 18:30ean hasita, Astran.

Hain zuzen, ijitoen eta patriarkatuaren sistema landuko du, eta egoera arrazistei buruz hitz egingo du. Antolatzaileek herri-tarrei hitzaldia gerturatzeko deia egin diete, eta hitzaldia bukatutakoan mokadua egongo dela adierazi dute.

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

LEA-ARTIBAI. MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEKO HITZA

HITZAK bi eskualdeetan 28.000 irakurle

Eskelak 18:00ak arte hartzen ditugu
eskelak@hitza.eus / Markina-Xemein: 94-684 44 36
Gernika-Lumo: 94-627 10 85 / Bermeo: 94-618 72 99

Eskelak orain
merkeago

Tarifak (BEZ barne)

Bi modulu	1X2 (38 mm x 64 mm)	50€
Lau modulu	2X2 (82 mm x 64 mm)	100€
Sei modulu	3X2 (168 mm x 64 mm)	150€
Hamabi modulu	3X4 (168 mm x 131 mm)	300€

* harpidedunek %50 merkeago